



GOMENDIOAK: BASO SUTEAK



Gomendatzen dugu Euskalmet web-gunearen bidez <http://www.euskalmet.euskadi.eus> eta Twitter bidez (@Euskalmet eta @112_SOSDeiak) eguneratzen diren iragarpenak jarraitzea.

Hona hemen Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzaren aholkuak baso suteak gertatzen direnerako, ondorio txarrik ez izateko, edo ahalik eta gehien murrizteko:

Prebentzioko neurriak:

- Seguru asko zure Lurraldeko agintariek uda garaian sua egitea debekatu dute, eta ez dute baimenik emango uztondorik edo bazkarik erretzeko, ezta barbakoarik edo suterik egiteko ere (horretarako prestatutako eremuetan ere ez). Sute-arriskua oso handia denean, txinpartarik edo sugarrik txikienak ere hondamena eragin dezake. Kontsulta ezazu.
- Dena den, agintarien iritziz sute-arriskua ertaina, handia edo oso handia denean, debekaturik dago mendian sua piztea. Haizea badabil, edo ura hurbil ez baduzu ere, ez piztu surik.
- Onena mendian surik ez piztea da, baina baimenduta badago, lur garbian eta toki ireki batean egin ezazu, eta suaren inguruan harriak jarri. Ondo itzal ezazu, ura bota eta lurrarekin estali.
- Ez bota pospolorik edo zigarro-mutxikinik, ezta paperik, plastikorik, beirarik edo sua sorrarazi dezakeen bestelako hondarrik edo material erregarririk ere.
- Baso-lurretan ez erabili sasi-garbitzeko makinarik, motozerrarik, soldadura-talderik, disko-makinarik edo erradialik.
- Sute-arriskua dagoen garaietan, mendian sartzeko ona izango litzateke lurra, komunikazio-bideak eta ordezeko bideak ondo ezagutzea, eta beti ikuspen handiko lekuetatik ibiltzea. Mendi-ibiliak egiteko, batez ere umeeekin edo pertsona nagusiekin bazoaz, seinalatuta dauden bideetatik ibili.

Zer egin baso-suteren batean bazaude:

- Sute bat ikusten baduzu, deitu beti larrialdietarako 112 telefonora.
- Suaren norabideari erreparatu eta ihes-bidea aurrez ikusi.
- Su-puntua txikia bada, saia zaitetz itzaltzen adarrekin, ura botata edo lurrez estalita.
- Ezin baduzu itzali, ez zaitetz goraka joan, alde egin alboetatik maldan behera eta beti haizearen kontra.
- Lasai egon, ez korrika egin, eta zapaltzen duzun lurrean arreta jarri.

- Ahal baduzu, joan zaitetz landaredirik gabeko eremu batera edo jada erreta dagoenera. Ez ihes egin sakonune edo sakanetarantz.
- Haizearen norabideari eta bere aldaketei erreparatu.
- ke-eremuan bazaude, ahoa eta sudurra musuzapi bustiarekin estali. Likido asko edan.
- Kea edo sua dauden tokiak ez zeharkatu oinez edo ibilgailuz; ondo ikusten ez baduzu, istripu bat izan dezakezu eta.
- Zalantzarik baduzu, deitu 112 telefonora eta esaten dizutena egin.

Larrialdietan, deitu **112** zenbakira.